

## STARTINNOVA

### Proiektuaren deskribapena:

Gu Eider, Eneritz, Joana eta Julen gara, eta gure enpresaren xedea eskuak libre uzten dituen euritakoa plazaratzea da. Euritako honen bidez kalean ibili bitartean eskuak beste gauzetarako erabili ahalko dira, hala nola muletekin ibiltzeko edo ume txikiak eramateko orga erabiliz. Guk eskaintzen dugun produktua oso erabilgarria da egunerokotasunerako, bai mugikortasun arazoak izan ditzakeen jendearentzat baita beste edozein beharrentzat ere (eskuak ez hozteko, erosketak egiteko...).